

Txotx!: sagardotegien garaia

19.01.2015



Urte berriaren iritsierarekin batera gure tradizio handienetako baten itzulera dator: sagardotegien garaia. **Hernani** izan zen 'Txotx!'-ari hasiera eman zion lehendabiziko herria. Urtarrilaren 11an egin zuten ekitaldian EITBko Eguraldia saioaren aurkezleak diren **Ana Urrutia** eta **Andoni Aizpuru** izan ziren protagonista. Egun batzuk beranduago, urtarrilaren 14an, **Astigarragaren** txanda izan zen. 'Loreak' filmeko aktoreak eta zuzendariak izan ziren 'Txotx' garaia hasteko ardura izan zutenak. [Goierriko](#) sagardotegiek urtarrilaren 15ean eman zioten hasiera eta **Edurne Pasabanen** bisita izan zuten. Egun bat beranduago Usurbileko sagardotegien denboraldia **Andoni Egañak** hasi zuen.

Apirila iritsi bitartean gure inguruko sagardotegiek milaka bisitari hartuko dituzte. **Sagardo** onenaz eta sagardotegietako ohiko menuaz gozatzeko aukera izango dute: bakailao tortila, bakailao frijitua piper berdeekin, txuleta, gazta, irasagarra eta intxaurrak.

[Sagardoaren Lurraldearen](#) webgunean sagardotegi eskaintza zabala aurkitu dezakezue. Gainera, zuen bidaiak antolatzeko informazio ere aurkituko duzue.

Tradizio hau hobeto ezagutzeko beste aukera bat sagardoari zuzenduta dauden museo ezberdinak bisitatzea da.

[Sagardoaren Etxea](#) Astigarragan dago eta sagardoaren kultura ezagutzeko balio du.

[Igartubeiti](#) museoan bisitariak martxan ikusi dezaketan **XVI. mendeko dolarea** dute. Gainera, etxeko txikienei zuzendutako jarduera ugari antolatzen dituzte.

Sagardotegietara egiten diren bisitak lagunartean egiten dira. Talde handiak izaten dira askotan: familia, lagunak, lankideak, koadrilak, etab. [Apaolaza Autobusak](#) enpresan alokatzeko tamaina ezberdinetako [autobusak](#) ditugu eta horrelako bidaiak egiteko eskaintza zabala daukagu: minibusak, bi pisuko autobusa, eserleku kopuru ezberdineko autobusak, etab. [Gure zerbitzua](#) erabiltzaileen beharretara egokitzen dugu. [Eskatu aurrekontua](#) konpromisorik gabe eta gozatu gure tradizio handienetako batez: Txootx!.

Arqazkia: Gipuzkoa Kultura